

IRAGARKIA

224. ALDIZKARIA - 2014ko azaroaren 14a

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK

ITURMENDI

Ximona gaztetxea lokal publikoaren erabilera arautzen duen ordenantza. Behin betiko onespena

Udalak, 2014ko urriaren 10ean egin osoko bilkuran, behin betikoz onetsi zuen Udalaren lokalen erabilera arautzen duen ordenantza. Haren kontra inolako erreklamaziorik, kexarik edo oharrik jaso ez denez jendaurrean egoteko epean, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1 eta 326. artikuluan ezarritakoa betetz, haren testu osoa argitara ematen da Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Iturmendin, 2014ko urriaren 10ean.–Alkatea, Victoriano Gabirondo Lanz.

XIMONA GAZTETXEAREN ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

1.–Atarikoa.

Iturmendiko Udalak ordenantza hau prestatu du, "Ximona gaztetxea" izeneko lokal publikoaren erabilera egokia izan dadin, eta jendearen eskaera eta ukitutako bizilagunen atsedena eta segurtasuna, baita erabiltzaileena beraiena ere, bateratzearen. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1 artikulua.

Lurzoruari buruzko maiatzaren 28ko 8/2007 Legeak, hiritarraren estatutuaren barrenean (4 eta 5. artikulua), ondasun eta eskubideen zerrenda jasotzen du. Eskubideen artean, etxean zaratarik edo beste emisio kutsagarririk gabe bizitzeko dago. Eta betebeharren artean, besteak gogaitu edo haien ondasunak hondatzeko arriskua duten egintza edo jarduerarik ez egitea.

Ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak arautzen dituen martxoaren 14ko 2/1989 Foru Legeak (martxoaren 14ko 26/2001 FLren arabera) zioen azalpenean jasotzen du josteta jarduera sozialetan erabiltzen diren sarrera murriztuko lokal eta instalazioek sortzen duten arazoari aurre egin beharra, batez ere besteen segurtasuna, osasungarritasuna eta eragozpenak jokoan daudenean.

Alde horretatik, 1.2 artikulua dioenez, eremu pribatu hutseko jarduerak, jende guztientzat irekita ez daudenak, 2/1989 Foru Legearen esparrutik kanpo izanik ere, "josteta edo aisiarako jarduerak egiten diren tokietan beharrezko baldintza teknikoak bete behar dira besteak ez gogaitzeko eta jendearen nahiz ondasunen segurtasuna bermatzeko; batez ere, egituren sendotasuna eta instalazioen funtzionamendua, suteen aurkako prebentzio eta babes neurriak eta segurtasun eta higiene arloko baldintzak.

Eremu horretan, pribatu hutsa baita, sartzen da gaztetxea, gazteei zuzendua, ez baitira inola ere nahasi behar ingurumena babesteko jarduera sailkatuen erregelamenduen mende jarduera bat egiteko baimena behar duten lokalekin. Abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretuak Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzen duen Erregelamendua onesten du. Haren 4. D. F) eranskinak ezartzen duenez, "ikuskizun publikoak eta josteta jarduerak Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren ingurumen arloko txostenik behar ez duten jarduera eta instalazioak dira, jarduera sailkaturako Udalaren lizentziaren mende daudenak, eta atal horretan sartzen dira tabernak, elkarte kultural edo gastronomikoak, kafetegiak, jatetxeak, antzokiak, zinemak, dantzalekuak, diskotekak, josteta aretoak, ziberzentroak, kirol instalazioak eta antzekoak".

Gazteendako lokala arautzen duen ordenantzaren helburua aisiako toki hori bermatzea da, erabiltzaileendako zein auzoendako eragozpen eta arriskuak saihestea eta interes pribatuak interes publikoarekin bateratzea.

Iturmendiko Udalak bere erregelamendu-ahalmena erabiliz eman duen xedapen orokor honen xedea da gaztetxea erabiltzeko behar diren neurriak zehaztu eta arautzea.

2.–Aplikazio eremua.

1. artikulua. Esparrua.

Ordenantza hau Ximona gaztetxea izenarekin ezagutzen den udal lokalari aplikatuko zaio, Udaletxearen kaleko 5 zenbakian baitago, Iturmendiko udal mugapean.

2. artikulua. Xedea.

Gaztetxea erabili gogo dutenek bete beharreko baldintza eta beharkizunak ezartzea du xede ordenantza honek, baita, ondoren, hartu beharreko neurriak ere, Iturmendiko Udalak "erabiltzeko lizentzia" eman ondotik.

Ordenantza hau ez betetzearen erantzule izanen dira Ximona gaztetxeko partaide guztiak.

3. artikulua. Definizioa.

Gaztetxea herriko gazte jendeak eratutako gizarte eta kultur arloko erakundea da, libreki haren partaide izatea erabaki dutelarik. Bertako jardueren artean sartzen dira: josteta jarduerak, bilerak, tailer, ikastaro, mintzaldi eta emanaldiak... eta oro har gazteekin eta haien kezkekin loturiko gaiak.

Gaztetxeko kideak nortasun juridikorik gabeko elkarteak dira eta gutxienez ordezkari bat izendatu beharko dute, haren bitartez jardun dezaten Udalarekin egiten dituzten tramite guztietan.

Gaztetxeko kide guztiak adingabeak badira, bi ordezkari beharko dira: gaztetxeko kide baten legezko tutorea eta ordezkari gazte bat, gaztetxeko gainerakoek hautatua, adin nagusikoa izatea behar ez duten ordezkariak eginkizun guztiak betetzeko. Kideak adingabeak eta adin nagusikoak badira, azken horietako bat edo bat baino gehiago izanen dira ordezkari.

Ondorio guztietarako, Iturmendiko Udalak ordezkariarekin eginen ditu bere eginbehar guztiak; Udalaren egintza guztiak jakinaraziko zaizkie hautatzen duten helbidean, eta konpromisoa hartuko dute jarduketa horien berri emateko gainerako kideei.

Ordezkararen helbidea garrantzitsua baita Udalaren jarduketak jakinarazteko, helbide edo ordezkari aldaketan berri eman beharko dio gaztetxeak Udalari; izan ere, interesdunak emandako helbidean ezin bada jakinarazi, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoari jarraituko zaio iragarkien bidez jakinarazteko.

4. artikulua. Eskaera eta ordezkariak.

Udalaren lokalen erabilera arautzen duen ordenantza aplikatuko da: II. titulua, 6. artikulua "Antolaketa eta aprobetxamendua".

5. artikulua. Ebazpena.

Udalak eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa egiaztaturik, Udalaren Hirigintzako Zerbitzu Teknikoek eranskinean eskatzen diren beharkizunak betetzen ote diren egiaztatuko dute, eta beharrezko txostena eginen dute. Txostena hartu eta 15 egun naturaleko epean, Iturmendiko Udalak, osoko bilkuran gehiengoak hala erabakita, gaztetxea erabiltzeko lizentzia eman edo ukatuko du.

Gaztetxea erabiltzeko lizentziak indarra izanen du, lizentziaren xedeko jarduerarekin jarraitzen bada.

3.–Xedapen teknikoak.

6. artikulua. Baldintza teknikoak.

Erabili ahal izateko gaztetxeak bildu behar dituen gutxieneko baldintza teknikoak ordenantza honen 1 eta 2. eranskinetan jasotzen dira.

Lokalaren egoeran edozein aldaketa eginez gero, gaztetxearen ordezkariak haren berri eman beharko dio berehala Iturmendiko Udalari.

4.–Administrazioaren esku-hartzea.

7. artikulua. Ikuskatzeak.

Interesdunek erraztu egin beharko diete Iturmendiko Udaleko langile eskudunei (arkitektoa, ingeniari teknikoa, aparejadorea ...) lokalaren egoera ikuskatu eta egiaztatzeko lana, "erabiltzeko lizentzia" mantentzeko.

8. artikulua. Errekerimendua eta lizentzia kentzea.

Ordenantza honetako edo gainerako araudi aplikagarriko xedapenen bat betetzen ez dela egiaztaturik, bi hilabeteak akatsa zuzentzeko eskatuko zaie titularrei. Epea iragaten bada errekerimendua bete dutela frogatu gabe, administrazio honek, aldez aurretik behar diren tramiteak eginik, lizentzia kentzeko espedienteak abiaraziko du, Osoko Bilkurak erabakia hartuta, zuzentzeko epea bukatu ondoren.

9. artikulua. Debekuak.

a) Lokalaren barrenean plastikoak, kartoia, koltxoak edo su hartzen eta hura hedatzen laguntzen ahal duten bestelako gaiak pilatzea. Mugapen horrek Eraikuntzaren Kode Teknikoaren babesa du; izan ere, berariaz arautuko dira sua pizteko arriskua murrizten duten baldintzak.

b) 18 urtez azpikoek alkohola kontsumitzea, Adingabeek Edari Alkoholdunak Kontsumitzea Galarazi eta Mugatzeari buruzko martxoaren 16ko 10/1991 Foru Legearekin bat.

c) Droga toxikoen, gai sorgogarrien zein psikotropikoen lege kanpoko kontsumoa edo trafikoa, Herritarren segurtasuna babesten duen otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren 23.i) artikularekin bat.

d) Gaztetxeko altzariz nahiz edozein elementuz eremu publikoa okupatzea, ibilgailuen edo oinezkoen joan-etorria eragotzi edo oztopatuz.

e) Eremu publikoa edozein hondar, zikinkeria eta, oro har, edozein zaborrez zikintzea.

f) Nafarroako Gobernuaren ekainaren 8ko 135/1989 Foru Dekretuak onartutako asots maila gainditzea.

10. artikulua. Arau-haustekak.

10.1. Arau-hauste oso larriak:

a) "Ez ohiko" jardueraren bat egitea (2. eranskina, 7. puntua), aldez aurretik Udalari jakinarazi gabe.

b) Ordenantza honetan edo kasuari aplikatzen zaion legerian ezarritako arauzko ikuskatze edo kontrol lanak oztopatzea edo sarrera ukatzea.

c) Baimendutako zarata maila gainditzea, zaraten aurkako 135/1989 Foru Dekretuak oso larritzat jotzen duenean.

d) Jarduera horiek egiten diren lokaletan adingabeek edari alkoholdunak izatea, kontsumitzea edo haiei eskaintzea.

e) Droga toxikoen, gai sorgogarrien edo psikotropikoen lege kanpoko kontsumoa eta trafikoa.

f) II. eranskineko 10. artikuluan (Gaztetxearen betebeharrak) hartutako konpromisoak ez betetzea.

g) Urtebetean hiru arau-hauste larri edo sei arin egitea, lehen arau-haustetik aitzina.

10.2. Arau-hauste larriak.

- a) Gaztetxeko altzariekin edo edozein elementurekin behin eta berriro eremu publikoa okupatzea, ibilgailuen edo oinezkoen joan-etorria trabatu edo oztopatzen bada.
- b) Asots maila baimendua gainditzea, 135/1989 Foru Dekretuak larritzat jotzen duenean.
- c) Urtebetean hiru arau-hauste arin egitea, lehen arau-haustetik aitzina.

10.3. Arau-hauste arinak.

- a) Lokalaren barrenean kartoia, plastikoak edo beste edozein material pilatzea, haien ezaugarriak direla-eta sua piztu edo hura hedatzen lagun dezaketenean.
- b) Ez betetzea kalea garbitzeko, eta lokala eta bertako segurtasun eta higieen elementuak zaintzeko betebeharra.
- c) Asots maila baimendua gainditzea, 135/1989 Foru Dekretuak arintzat jotzen duenean.
- d) Ordenantza honetan edo lege aplikagarrietan larritzat edo oso larritzat jotzen ez diren arau-haustea.

11. artikulua. Zehapenak.

11.1. Arau-hauste oso larriei zehapen hauetako bat edo biak ezarriko zaizkie:

–Erabiltzeko baimena kentzea, harik eta akatsak zuzendu arte.

–150etik 300 eurora bitarteko isuna.

11.2. Arau-hauste larriei zehapen hauetako bat edo biak ezarriko zaizkie:

–Lizentzia kentzea, 15 egun arte.

–100dik 150 eurora bitarteko isuna.

11.3. Arau-hauste arinei zehapen hau ezarriko zaie:

–100 euro bitarteko isuna.

11.4. Iturmendiko Udaleko alkateari edo zinegotzi eskuordeari dagokie zehapen espedienteen tramitazio administratiboa.

12. artikulua. Erabilera mugak.

Gaztetxearen barnean, elkartearen autonomia ukatu gabe, ezin izanen da pertsonen berdintasunaren printzipioen aurkako jarduerarik egin. Horregatik, debeku dira indarkeriazko ekintzak, edo pertsonen duintasunaren kontrakoak, edo arraza, sexua, erlijioa, pentsaera, sexu joera eta gainerako inguruabar pertsonal edo sozialak direla-eta gizabanako edo taldeei bereizkeria egitea.

Debeku da gaztetxea ordenantza honetan ageri ez diren jardueretarako erabiltzea, bereziki jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri edo arriskutsuetarako.

13. artikulua. Mantentzea.

1. Gaztetxearen erabiltzaileak behartuta daude higiezin guztia arretaz zaintzera, eta bertako kideek eta erabiltzaileek, ekintzaz edo axolagabekiaz, eragin ditzaketen kalteen aurrean erantzun beharko dute.

5.–Xedapen gehigarria.

Iturmendiko Udalari dagokio ordenantza honen puntu guztien interpretazioa egitea.

6.–Azken xedapenak.

Lehendabizikoa.–Gaztetxea erabiltzeko lizentzia eskuratzeak ordenantza honetan xedatutakoa onartzea dakar.

Bigarrena.–Ordenantza honek aurreikusten ez duen hartan, Estatuko zein Nafarroako lege edo dekretuetan xedatuari jarraituko zaio.

Hirugarrena.–Ordenantza honek ez du ondorio juridikorik izanen harik eta testua oso-osorik Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabete iragan arte, epe hori baitute Estatuko edo Foru Komunitateko Administrazioek toki entitateei errekerimendua egiteko, haien egintzak edo erabakiak deuseztatzeari begira.

1. ERANSKINA

Udalaren betebeharrak

A.–Udalak gaztetxean eta haren zerbitzura ezarriko dituen beharrezko baldintzak, erabiltzaileek mantendu beharko dituztenak, hirugarrenei trazarik ez egiteko eta pertsona eta ondasunen segurtasuna bermatzeko, bereziki egituren sendotasunari eta instalazioaren funtzionamenduari dagokienez, suteen aurkako prebentzio eta babes neuriei dagokienez eta osasungarritasun eta higieen baldintzei dagokienez ere.

1. Edateko ur korrantearen zerbitzua, bana-banako kontagailua duela.

2. Komun-zuloa eta konketa dituen komuna.

3. Suteei aurrea hartzeko neurriak, indarra duen araudiari jarraikiz.
4. Suteen aseguru poliza eta erantzukizun zibilekoa, Udalak sinatua.
5. Seinale eta larrialdiko argiak paramentuan, ateratzeko atearen gainean; gainera, lokala nola dagoen banatua, haren arabera agintzen direnak, araudiarekin bat.
6. Isolamendu termikoa eta akustikoa eraikinaren teilatuan eta hura mantentzeko lanak.

2. ERANSKINA

Gaztetxearen erabiltzaileen betebeharrak

Gaztetxeko kideek, beren izenean edo ordezkarien bitartez, konpromisoa hartzen dute kalea eta eremu publikoa garbi mantentzeko, lokala egoki zaindu eta erabiltzeko; bereziki, ondoko atal hauetan ezarritakoa beteko dute:

1. Okupatzaileei dagokie beren kontura garbitzea espaloia eta kaleko eremua, eraikinaren fatxadari dagokion luzeran. Ez badute hala egiten, Udala arduratuko da eta kontua pasatuko die, zein den ere dagokien zehapena.
2. Udalaren esku utzi beharko dute lokalera sartzeko giltzaren kopia, behar handiko kasuetan edo larrialdietan udal langileak bertan sartu ahal izateko.
3. Debeku da hondakinak, hondarrak eta, oro har, edozein zabor botatzea edo uztea eremu publiko eta pribatuan; edukiontzia eta horretarako ontziak erabili beharko dira beti. Hondakin solidoen bilketa sistema jarraituko dute betiere.
4. Uneoro bermatuko da behar bezala funtzionatzen dutela edateko ur korrantearen zerbitzuak eta komun-zuloa eta konketa dituen komunak.
5. Gaztetxeko kideen betebeharra da uneoro mantendu eta betetzea Udalak edo haren teknikariek zehazten dituzten segurtasun neurriak, hala nola: sarbideak, eskailerak, seinalatzeak eta larrialdietako argiteria, suteen aurkako ekipoak, eta kasu bakoitzean zehazten direnak, betiere aplikatzeko den araudiarekin bat.
6. Lokala "ez-ohiko" erabilera batzuetarako bideratzen bada, adibidez, jendeari irekitako ekitaldiak, hala nola, jaialdiak, kultur ekitaldiak eta abar, edo aldibaterako taberna gisa erabili nahi denean (herriko festak eta abar), idatzita eskatu beharko diote alkateari, jardueraren data, erabilera, ordutegia eta xedea adierazita.
7. Udalak "erabilera ez-ohikoa" (8. atala) ahalbidetzeko baimenak direla-eta salbuespenez ezar ditzakeen eginbeharrak betetzeko konpromisoa hartzen dute gaztetxeko kideek, bai eta ezar dezakeen tasa ekonomikoa ordaintzekoa ere.
8. Gaztetxeko erabiltzaileen kargura izanen dira uraren, zaborraren, argi indarraren edo gasaren gastuak, halakorik baldin bada.
9. Gaztetxearen betebeharra da eraikineko mantentze-lanak egitea (paretak, pintura, leihoak, teilatua eta abar), orobat instalazio guztienak, eta horien kostuari aurre egitea.
10. Gaztetxeko kideek, herriari ordaindu beharreko alokera gisa, kontuan hartuz gizarte eta kultur arloko entitatea dela, konpromisoa hartzen dute herrian ohitura diren festetako eta kultur eta kirol arloko jardueretan parte hartzeko, antolaketa lanetan aritzeko, eta behar den guztia egiteko, beste erakunde edo talde boluntarioekin batera, jarduera horiek ongi gauza daitezen.

3. ERANSKINA

Ordezkaritza frogatzen duen dokumentua

Sinatzen dutenek, Iturmendiko gaztetxeko kideek,

adinez nagusi diren gaztetxeko kide hauek izendatzen dituzte:

Izena:

1. deitura:

2. deitura:

IFZ:

Helbidea:

Telefono finkoa:

Sakelako telefonoa:

Helbide elektronikoa:

Bestelakoak:

Haren ordezkari izan daitezen Udalarekin egin beharreko jakinarazpen edo tramiteetan.

Horrela ager dadin, gaztetxeko kide guztiek sinatzen dugu (*),

Iturmendin, 20....(e)ko,(a)ren,(e)an.

(*) Sinadura bakoitzaren azpian, izen-deiturak eta NANA adierazi.

Iragarkiaren kodea: L1414549